

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Lehendakariak Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordean parte hartu du

*Yolanda Barcinak EBeko Espainiako enbaxadoreekin beste Europako eskualde batzuek egikaritu behar ez dituzten funtsak berriz esleitzea aztertu du*

Jueves, 03 de mayo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Eskualdeen Batzordearen 95. osoko bilkuran parte hartu du Bruselan, eta bertan honako gai hauek aztertu ditu: Nekazaritzaren Politika Komuna, Eskualdeko Garapen Funtsak, garraioaren Europaz haraindiko sareen berrazterketa edo Europako Gizarte Funtsa bera.

Europako Kontseiluko lehendakari Herman Van Rompuy-k parte hartu duen bilkuran zehar, ondorengo gaiak ere eztabaidatu dira: familia berriz batzea, airearen eta isuriaren kalitatea, hirien energiaren eraginkortasuna, "zahartze aktiboa" edo arrantza-politika.

Yolanda Barcinak Bruselako egonaldia baliatu du Europar Batasunean Espainiako enbaxadore Alfonso Dastis eta José Pascual ordezkariekin bi bilkura egiteko; haiek, beren kontseilariekin batera, 2014-2020 hainbat urtetarako finantza-eremuari negoziatioari eta haren programei buruz hitz egin diote, herrialde eta eskualde guztientzako oinarritzeko gaia, eta haien eztabaidak hurrengo hilabeteetan ezagutuko dute beren unerik gorena.

Bi bilkuretan, enbaxadoreek eta Lehendakariak hitzartu dute Nafarroak protagonismoa izan behar duela hazkunde-politikan eta, zehazki, Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B) arloan.

Gainera, Europako goi-funtzionarioek Nafarroara egin beharreko bisitak hitzartu dira, beren enpresak, teknologia-zentroak eta unibertsitateak asmo handiko Europako Teknologia Institutuan presentzia izan dezaten aztertzeko; Foru Komunitateak buru den arloetan parte hartzeko aukera du, energia berriztagarrietan eta elikaduran, esaterako.



Barcina Lehendakaria eta Dastis enbaxadorearen arteko bilera.

Enbaxadoreak abian dauden programen inguruko egoera eguneratu dute: ETEentzako lehiakortasuneko "Horizonte 2020" (*Etorkizuna 2020*), "Cosme" , "Connecting Europe" edo "Erasmus para todos" (Erasmus *guztiontzat*), non haien onuradunek beren "poltsak" % 25 arte handitu ahal izango zituzten.

Nafarroak jada existitzen diren Europako funtsen berresleipenaz baliatzeko duen aukeraz aritu dira berriz ere Alfonso Dastis eta José Pascual Marco, eta Europako beste eskualde batzuek ezingo dituztenak egikaritu bizi dituzten aurrekontu-zailtasunengatik.

Yolanda Barcina prest agertu da Foru Administrazioak "oraindik eta ahalegin handiagoarekin" lan egin dezan Bruselan dagoen azken euroa baliatu eta Nafarroarentzat oinarritzakoak diren arloetan inbertitzeko, gazteen enplegua sustatzen, adibidez.

Barcina Lehendakariak adierazi du, Nafarroako Foru Komunitateak bizi duen eskasia-une hauetan oraindik eta garrantzi handiagoa duela existitzen diren aukera guztiak ahalik eta gehien baliatzea, Nafarroan burutu nahi diren proiektuetan Europako kofinantzaketa lortzeko.



Barcina Lehendakaria eta Dastis enbaxadorearen arteko bileraren une bat.